



Oiartzungo merkataritza txikia sustatzeko dirulaguntzak (2026. urteko deialdia)

1. ARTIKULUA Xedea eta helburuak.

Oinarri hauen xedea da Oiartzunen, Elizalde eta Altzibar auzoetako lokal hutsetan merkataritza txikia sustatzeko dirulaguntzen oinarriak zehaztea.

Dirulaguntza hauen helburu nagusia merkataritza sustatu eta indartzea da, hain zuzen ere, Elizalde eta Altzibar auzoetako ardatz komertzialean dauden lokal hutsetan merkataritza txikia sustatzea, herria eta auzoak biziberritzeko eta herritarrei zuzeneko eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko.

Dirulaguntza lerro honen aplikazio eremua Elizalde eta Altzibar auzoetara mugatzen da, Oiartzungo udalerrian merkataritza tradizionalki eta gaur egun ere kontzentratzen duten eremu nagusiak direlako. Halaber, elkarri jarraikortasun funtzional eta geografikoa ematen dioten auzoak izanik, eremu horretan jarduketa publikoak bideratzeak tokiko merkataritza txikia sustatzeko, baliabideen erabilera eraginkorra bermatzeko eta udalerriko dinamizazio ekonomiko eta komertzialari eragin handiagoa emateko aukera eskaintzen du.

Oiartzungo merkataritza tradizionala eta hurbilekoa sustatzea da helburua, udalerriko bi auzo handienetan establezimendu komertzialen ezarpena, mantentzea eta sendotzea bultzatuz, hiri-, gizarte- eta ekonomia-bizitasunari modu eraginkorren laguntzea.

Oiartzungo Merkataritza Sustatzeko dirulaguntzak Plan Bereziko ekintza planeko helburu nagusiekin bat egiten du, hala nola:

- Oiartzungo merkataritza txikien bizimodua mantendu eta hobetzea.
- Oiartzunen merkataritza txikia indartuz, jarduera ekonomiko berriak herrian ezartzeko baldintzak sortzea.



2. ARTIKULUA Lagunduko diren merkataritza txikia sustatzeko proiektuak.

Deialdi honen ondorioetarako, merkataritza tradizional eta hurbilekotzat joko da tamaina txiki edo ertaineko establezimendua, publikoari zuzeneko arreta eskaintzen diona, bide publikotik sarbide independentea duena eta herriko biztanleei zerbitzu jarraitua emateko bokazioa duena, tokiko merkataritza-eskaintzaren aniztasunari eta jarduera ekonomikoari lagunduz.

Gehienez ere 5 urteko antzinatasuna duten proiektu hauek lagunduko dira:

- Negozio berri baten sorrera.
- Negozioa birkokatzea, beti ere, kaletik zuzeneko sarbiderik ez duen lokal batetik kaletik sarbidea duen lokal batera pasatzeko.
- Hurbileko merkataritza tradizionala sustatzeko egindako lekualdaketak, Elizalde-Altzibar ardatz komertzialeko kaleetan kokatutako lokaletara egiten denean, beti ere ez bazeuden beste auzoetako ardatz komertzialean kokatuta.
- Ixtera doan negozio baten jarraipenerako proiektua (eskualdaketa).

Jarduerari ekin ahal izateko aldeko txostena eskuratu den eguna hartuko da negozioaren hasiera data gisa, eta, eskualdaketen kasuan, eskualdatzea jakinarazi den eguna.

3. ARTIKULUA Diruz lagunduko ez diren proiektuak.

Honako hauek ez dira dirulaguntzara onartuko:

- Mota guztietako ostalaritza
- Merkataritza-kate, talde edo sare antolatu baten parte diren negozioak, marka komertzial komun baten pean jarduten badute edo irudi korporatibo, hornikuntza-sistema, prezio-politika edo kudeaketa-eredu bateratu bati lotuta badaude, eta beti ere salmenta-eremu erabilgarria 80 metro koadrotik gorakoa bada.
- Alojamentuak
- Banketxeak
- Herri ekimeneko elkarteak eta beraiek sustatutako ekimenak



4. ARTIKULUA Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Orokorrean, onuradunek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Lokala Elizalde-Altzibar ardatz komertzialaren barne dagoen eremuan kokatzea.
(II.eranskina)
- b) Negozioak-jarduerak 5 urte edo gutxiago izatea.
- c) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko eta Oiartzun Udalarekin betebeharrak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere.
- d) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren inhabilitazio egoeretako bakar batean ere ez egotea.

5. ARTIKULUA Dirulaguntza lerroak.

Osorik edo zatika diruz laguntzeko gastutzat hartuko dira 2026eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31a arte egindako gastuak.

Dirulaguntza lerroak mota hauetakoak izan daitezke:

- Gastu orokorrak:
 - a. Ekimena abiarazteko hasierako gastuak: aholkularitza, obrak, notaritza...
 - b. Hutsik dagoen lokala alokatu edo erosteko gastuak
 - c. Tresna, altzari, makinaria, etab.
 - d. Jarduera jarraikortasuna (eskualdaketa)
 - e. Web-orriaren diseinua zein marketing edo promozioeko gastuak
 - f. Jarduerarekin zerikusia duten prestakuntza ikastaroak
 - g. Lan arriskuen prebentzioari eta datuen babeserako legediei erantzuteko gastuak
- Oiartzungo merkataritza txikia sustatzea helburu duten elkarte bateko bazkideak.



- Berdintasun eta segurtasun ikuspegia zaintzen duten erakusleihen garden eta zabalak egiteko egokitzapen lanak.

6. ARTIKULUA Diruz lagunduko ez diren gastuak.

Ez da diru laguntzarik emango honelako gastuetarako:

- a) BEZ-a eta zergen ordainketa
- b) Lehengaiak
- c) Lan-sariei loturiko gastuak: soldatak, gizarte segurantzak, autonomo kuotak...

7. ARTIKULUA Diru laguntzaren zenbatekoa eta irizpideak.

Proiektu bakoitzak, sortu den urtearen arabera, gehienez dirulaguntza hau jaso ahal izango du 2026an egiten dituen gastuak ordaintzeko.

ENPRESA BAKOITZAK	KOPURUA GEHIENEZ
2026an sortutakoa	3.000€+ 820€* + 180€ **
2025ean sortutakoa	3.500€
2024an sortutakoa	3.500€
2023an sortutakoa	2.500€
2022an sortutakoa	1.500€

* 820 euro berdintasun eta segurtasun ikuspegia zaintzen duten erakusleihen garden eta zabalak jartzeko lanengatik

** 180 euro Oiartzungo merkataritza txikia sustatzea helburu duten elkarte bateko bazkidetza kuotak ordaintzeko

7.1. Aurrekontua

2026ko deialdiak 35.000 euroko dirulaguntzak baimentzen ditu aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

- 1 0223.471.430.00.01 2026



Oiartzungo Udalak baimendutako gastua murriztu ahal izango du dauden eskaera guztiak aztertu ondoren.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntza hauek beste erakunde batzuk eman ditzaketen dirulaguntzekin bateragarriak izan daitezke, baldin eta gastu bera justifikatzeko ez badira eta gain-finantzaketa ematen ez bada. Ondorio horietarako, beste erakunde batzuetatik dirulaguntza jaso badute, adierazi beharko dute zein erakundetatik, eta zuriketan justifikatu beharko dute gain-finantzaketa ez dela eman, diruz lagundutako kopuru osoa justifikatuz.

Dirulaguntzak baimendutako gastua agortu arte emango dira. Gastua agortuko balitz, Udalak bere egoitza elektronikoko bidez aditzera emango du, eta ez dira eskaera berriak onartuko.

7.2. Irizpideak

1. 2026an sorturiko proiektu bakoitzak gehienez 4.000 euro jasoko ditu, honela banatuta: 3.000 euro gorago zehaztu diren gastu orokorretarako, 820 euro berdintasun eta segurtasun ikuspegia zaintzen duten erakusleihen garden eta zabalak jartzeko lanengatik eta 180 euro Oiartzungo merkataritza txikia sustatzea helburu duten elkarte bateko bazkidetza kuotak ordaintzeko.
2. 2025ean sorturiko proiektu bakoitzak gehienez 3.500 euro jasoko ditu gorago zehaztu diren gastu orokorretarako.
3. 2024an sorturiko proiektu bakoitzak gehienez 3.500 euro jasoko ditu gorago zehaztu diren gastu orokorretarako.
4. 2023an sorturiko proiektu bakoitzak gehienez 2.500 euro jasoko ditu gorago zehaztu diren gastu orokorretarako.
5. 2022an sorturiko proiektu bakoitzak gehienez 1.500 euro jasoko ditu gorago zehaztu diren gastu orokorretarako.



8. ARTIKULUA Eskerak aurkezteko lekua, epeak eta dokumentazioa.

Eskerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira aurrez aurre edo egoitza elektronikoa Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Eskariak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita aurkeztu ahal izango dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Oiarzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu deialdi honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, datu elkarreragingarri hauek lortzeko:

- Identitatea (eskatzailea pertsona fisikoa bada).
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko Zerga betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea.
- Eskaera egiten duen elkarteak eskaera orrian adierazitako kontu korrontearen titulartasuna.

Horiek guztiak, interesdunak eskabidean berariaz aurkakorik adierazi ezean. Aurka azalduz gero, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

- Identifikazioa egitea nortasuna egiaztatzen duen edozein dokumenturen bitartez, eskatzailea pertsona fisikoa bada (NAN, pasaporte, e.a.).
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko Zerga betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiria.
- Eskaera egiten duen elkarte, erakundeak edo interesatuak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua araber, Oiarzungo Udalak ezin baditu agiri horiek



elektronikoki bildu, salbuespen gisa, eskatu ahal izango dio interesdunari horiek aurkezteko.

2026eko abenduaren 31an amaituko da eskaerak aurkezteko epea. Aurretik aipatu bezala, epea amaitu baino lehen baimendutako gastua agortuko balitz, Udalak bere egoitza elektronikoko bidez jakinaraziko luke, eta ez dira eskaera gehiago onartuko.

Behin eskaerak aztertu eta ebatzita, beranduenez ere urtarrilaren 31 bitarte zuritu ahal izango dira diruz laguntzeko gastuak.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskaera orri orokorra.
- Proiektuaren memoria.
- 2026 urteko gastuen aurreikuspena (dirulaguntzaren kopuruak arterainokoa)
- Kontu korrontearen zenbakia.

9. ARTIKULUA Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak (GAO, 2018/11/30) ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

10. ARTIKULUA Dirulaguntza justifikatzeko epeak.

Gastuak 2027ko urtarrilaren 31a baino lehen justifikatu beharko dira eta horretarako 2026ko fakturak aurkeztu beharko dira, I. eranskinarekin batera.



11. ARTIKULUA Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak (GAO, 2018/11/30) 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

Beste finantzazio-bide batzuk ere lortu balira, izandako gastuaren %100ean ezartzen da finantzazio-muga, hau da, ezingo da inoiz gertatu gain finantzaketarik Udalaren dirulaguntzarekin.

Halakorik gertatuz gero, itzulera prozedura martxan jarriko da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren (GAO, 2018/11/30) IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

12. ARTIKULUA Emateko prozedura.

Dirulaguntzak eskaerak jaso ahala tramitatuko dira. Dirulaguntzaren %70 eskaera ontzat ematen den momentuan ordainduko da. Gainerako %30a, dirulaguntzaren justifikazioa ontzat ematen denean.

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu.

Udaleko iragarki taulan eta www.oiartzun.eus web orrian ere behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

13. ARTIKULUA Onuradunen betebeharrak.

- Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak (GAO, 2018/11/30) arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.
- Enpresa jarduerari gutxienez 2 urtez eustea.



- Oartzungo Udalari jakinaraztea beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituela oinarri hauen xede edo oinarri berarekin.

Onuradunaren betebeharrak justifikatzeko Oartzungo Udalak egiaztatuko du ofizioz oinarri hauen 4.c) eta d) artikuluan adierazitako baldintzak, jarduera baimena indarrean izatea eta kontu korrontearen titulartasuna. Edonola ere, Udalak egiaztapen hori egiteko aukera ez balu, dagozkion egiaztagiria eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

Betebeharrak betetzen ez badira dirulaguntza itzuli egin beharko da Oartzungo Udalaren dirulaguntzak (GAO, 2018/11/30) arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

14. ARTIKULUA Araudi osagarria.

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak (GAO, 2018/11/30) ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.



BEHARREZKO AGIRI/DATUAK, UDAL HONEK ESKURATUKO DITUENAK:	DOCUMENTOS/DATOS QUE RECABARÁ ESTE AYUNTAMIENTO:
<p>Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Oiartzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu deialdi honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, ondoren adierazten diren datu elkarreragingarriak lortzeko, interesduna horren aurka agertu ezean. Horrela balitz, aurka egitearen arrazoia azaldu eta agiriak berak aurkeztu beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Identitatea (eskatailearen pertsona fisikoa bada). - Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga betebeharrak egunean izatea. - Gizarte segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea. - Kontu korrentearen titulartasuna egiaztatzea. 	<p>De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el Ayuntamiento de Oiartzun realizará por medios electrónicos las comprobaciones y consultas necesarias para la presente convocatoria, a fin de obtener los datos interoperables que a continuación se indican, salvo oposición del interesado. En tal caso, deberá motivar la impugnación y presentar los propios documentos:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Identidad (en caso de personas físicas). - Estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Diputación Foral de Gipuzkoa. - Estar al corriente en el pago de sus obligaciones con la Seguridad Social. - Verificar la titularidad de la cuenta corriente

<p>Eskataileak EZ DIO BAIMENIK ematen Oartzungo Udalarik sektore publikoko edozein entitatetik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiaztatzea eskatera hau aurkezteko baldintza guztiak betetzen direla.</p>	<p><input type="checkbox"/> <i>La persona solicitante se OPONE a que el Ayuntamiento de Oiartzun recabe directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la presentación de esta solicitud.</i></p>
<p>Baimenik ez ematearen arrazoia / Motivación de la oposición</p>	

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:	DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:
<p>Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.</p>	<p>No se halla incurso en procedimiento alguno de reintegro de subvención pública o sancionador.</p>
<p>Ez duela burutzen emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko Legearen testu bateginaren 3.1 artikuluan adierazitako diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jarduerarik; ez duela sexuan oinarrituta diskriminazioa</p>	<p>Que no lleva a cabo actividades que supongan discriminación por razón de las circunstancias de discriminación múltiple a que se refiere el artículo 3.1 del Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y contra la Violencia Machista contra las Mujeres; que no está sancionada administrativa o penalmente</p>

<p>egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigorzehapenik; ez dagoela laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean dutela edo legez behar ez dutelako; eta estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela edo ez dituztela legez ezarri beharrik (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko Legearen testu bateginaren 23.2. art).</p>		<p>por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres; que no está excluida de las ayudas y subvenciones por estar en vigor o por normativa estatal un plan de igualdad; y que han adoptado o no medidas de prevención o de lucha contra el acoso sexual y el acoso por razón de sexo, tal y como establece la legislación estatal en materia de igualdad de mujeres y hombres (art. 23.2 del texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y contra la violencia machista contra las mujeres).</p>
<p>Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribatari diru-laguntza eskabiderik eginez gero, Oiartzungo Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.</p>		<p>Que se compromete a comunicar al Ayuntamiento de Oiartzun la solicitud de subvención para la misma finalidad, formulada ante cualquier entidad pública o privada.</p>

<p>Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.</p>		<p>Que no ha solicitado ni recibido ninguna otra ayuda para la misma finalidad, además de la presente solicitud de ayuda, de otras entidades públicas o privadas.</p>
EDO / O		
<p>Laguntza eskabide honez gain helburu bererako beste laguntzak jaso edo eskatu dituela, beheko erakunde hauei:</p>		<p>Que, además de la presente solicitud de ayuda, ha recibido o ha solicitado otras ayudas para el mismo fin, a las siguientes entidades:</p>
<p>Erakundea / institución:</p>	<p>Zenbatekoa/ importe</p>	<p>Egoera / situación *</p>

*Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratua /sin resolver, resuelta pero sin cobrar o cobrada

<p>Tokia eta eguna / Lugar y fecha</p>	<p>Sinadura / Firma</p>




DATU BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN BÁSICA DE PROTECCIÓN DE DATOS

<p>Arduraduna <i>Responsable</i></p>	<p>Oiartzungo Udala Helbidea: Done Eztebe plaza 1, 20180 Oiartzun (Gipuzkoa) Tlf. 943 490 142 Posta: oiartzun@oiartzun.eus <i>Ayuntamiento de Oiartzun</i> <i>Dirección: Done Eztebe plaza 1, 20180 Oiartzun (Gipuzkoa)</i> <i>Tlf. 943 490 142</i> <i>Correo: oiartzun@oiartzun.eus</i></p>
<p>Helburuak eta zilegitasuna <i>Fines y licitud</i></p>	<p>Herritarren eskaerei arreta emateko dagokien espedienteak kudeatzea. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean oinarritutako eskumenak garatzea.</p> <p><i>Gestión de expedientes relativos a atención de solicitudes de la ciudadanía. Desarrollo de competencias en base a la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas</i></p>
<p>Hartzaileak <i>Destinatarios</i></p>	<p>Arloan eskumena duten beste administrazioei jakinarazi ahal izango dira datu pertsonalak.</p> <p><i>Los datos personales podrán ser comunicados a otras administraciones públicas con competencia en la materia.</i></p>
<p>Eskubideak <i>Derechos</i></p>	<p>Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezerezteko, eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamendu horren aurka jartzeko. Horretarako, idazki bat eta bere nortasuna egiaztatzen duen agiria bidali beharko ditu Udaletxeko helbidera edo dbo-dpd@oiartzun.eus posta elektronikora.</p> <p><i>La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección del Ayuntamiento incluyendo documento acreditativo de su identidad o al correo electrónico dbo-dpd@oiartzun.eus.</i></p>
<p>Informazio gehiago <i>Información adicional</i></p>	<p>http://www.oiartzun.eus/datu-babesa</p>

II. ERANSKINA: Elizalde-Altzibar ardatz komertziala

Elizalde-Altzibar ardatz komertzialaren barne dagoen eremuan kokatzen diren lokalei eragingo die diru laguntza lerroak. Eremu hori laranja dago koloreztatua jarraian agertzen diren Elizalde zein Altzibar auzoko mapetan.

Elizalde





OIARTZUNGO
UDALA

Altzibar

